



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitzatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

3. ERABAKIA: ARROSATEGIA ETXEAREN ERABERRITZEKO ETA ESKOLEKIN LOTURAN DIREN EREMU PUBLIKOEN SORTZEKO PROGRAMA BAIMENAK

(7.1.2 nomenklatura)

Auzapezak biltzarrari adierazi dio Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2311-3 artikulua araberak, ekintza berezi batentzako herriak programa baimenak eta ordainketa kredituak bozka ditzakeela.

Programa baimena da ekintza horrentzako egin daitezkeen gastuen muga gorena. Indarrean segituko du, iraupen mugaturik gabe, indargabetua izan arte. Aldatua izan daiteke.

Ordainketa Kredituak (OK) dira Programa Baimen (PB) baten baitan eta urtean zehar egiten diren gastuen estaltzeko muga gorena.

Inbertsio atalaren aurrekontu-oreka soilik baloratuko da ordainketa kredituak kontuan hartuz.

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die Arrosategia etxearen eraberritzeko eta eskolekin loturan lirakeen eremu publikoak sortzeko proiektua. Proiektuaren garrantzia eta ekintza horrentzako deialdi orokorra egitearen interesa ikusirik, programan baimen bat indarrean ezartzea proposatu du.

Auzapezak Herri Biltzarrari aurkeztu dizkio programari loturiko gastuen banaketa, eta oroitarazi du ekintzaren diruztatzea auto-finantzazio, dirulaguntza eta mailegu bidez eginen dela.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU - gehienez 2 300 000 € ZK-ko programa baimen bat sortzea Arrosategia etxearen eraberritzeko eta eskolekin loturan diren eremu publikoak sortzeko.

- ordainketa kredituak honela banatuak direla:

ZGB (Zerga Guziak Barne)	2024	2025	2026	OROTARA
Sariak, ikerketak (2031 artikulua)	150 000 €	45 000 €	5 000 €	200 000 €
Lanak (23. artikulua)	0 €	1 500 000 €	600 000 €	2 100 000 €
OROTARA	150 000 €	1 545 000 €	605 000 €	2 300 000 €

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 9

Balitzko boz kopurua : 9

ALDE : 9

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.